



LIBURUA

Linterna piztu ta barrura



EREIN

ITZALEN DISTIRA ARRATE EGAÑA

EREIN, 2022

AMAIA ALVAREZ URIBEA

O hikoia izaten da argien itzalei buruz jardutea literaturan, pertsonaia baten alde iluna azaleratzea, zibilizazio baten ajeez edo bizimodu ezkutuari gorabeheraz aritzea. Baina Arrate Egañak kontrako norabidea hartu du *Itzalen distira* ipuin bilduman: laino beltzen artean beti ager daitezkeelako eguzki izpiak.

Izenburuak markatzen dizkigu, beraz, abiapuntua eta ipuinok partekatzen duten haria, bestela, askotarikoak direlako testu hauetako gaiak eta egoerak: kartzelan bizitakoa kaleratzean, etorkizunerako aholku artistikoak, bizitza eta heriotzaren arteko igarobidea, besteen onarpenerako egindakoak, familia loturak eta etenak, adiskidetasunaren eta maitasunaren artekoak, menpekotasunaren zamaren kudeaketa, eta gazteen justizia ekologikoa.

Zortzi narrazio dira guztira eta protagonistak ere ez dira ohikoak: kartzelatik irten berri den gizona, leihotik begira bizi den andre zaharra, elizara hileta prestatzera doan alaba ateo, erretiratuentzako txangora doan bakarzalea, gurasoenetik alde egitear dagoen gaztea, irakaslearentzat detektibe den institutuko ikaslea, galdutako bizitza berreskuratutako nahi duen seriezalea, eta animaliak maite dituen ekologista beganoa.

Deseroso sentiarazi naute *Marquez*, *Ordezkoaren teoria* eta *Final Destination* ipuinek, bertan gertatzen direnek giro arraroa sortzen dutelako, sozialki arbuiztzen diren portaerak daudelako tartean, eta, horrenbestez, etika edo moralari buruzko debate filosofikoak egiteko aukera ematen dutelako bertan azaldutakoak.

Norena da ohe hau?, Nigan bizi den beste hori eta *'Mercy' eman* narrazioekin ordea, irribarrea etorri zaitzazu. Izan ere, egoerek min eta atsekabetik duten arren, erraza da uneren batean protagonistarekin enpatizatzea. Denok izan dugu inoiz antzeko pentsamendu edo sentimendu kontraesan korrik.

Lolitaren ama-rekin, literatura irakasle bat dagoenez tartean, nire irakasle-lankideekin eta nire ikasleekin partekatze gogoa sartu zait (ez dut egin, oraindik). Eta *Itzalak* ipuina da bilduma honen bihotza, itzal asko elkartzen direlako teiltatu beraren azpian, familia normal baten baitan; bizitza askoren inflexio-puntu paraleloak. Sorpresa polita izan da liburu hau, bitxia, ederra eta gomendagarria. ●